

Eskuz erosi, eskuz margotu

Antonio Lopez pintore espainiarrak barazkiak erosi ditu Iruñeko merkatuan, gero margo tailer bat emateko

Agentziak Iruñea

Eskuetan du abilezia Antonio Lopez pintore espainiarrak (Ciudad Real, 1936). Abilezia eta irakaspen ugari. Irakaspen horietako bat eskaintzera etorri da Iruñera. Nafarroako Unibertsitateak gonbidaturik, *Figurazioaren erreferentia* lantegia eskainiko du bost egunez, Juan Jose Akerreta eta Jose Maria Mezquita margolariekin batera. Lehen irakaspena goizean goiz eman zuen atzo, ondoren margotu behar dituen natura hiletarako behar zituen barazkiak Zabalguneko merkatuan erosita. Bere eskuekin erosi ere. Berak erositakoa berak egosiko du margoetan, berak pintatuko du. Hoegita hamar ikaslek jarraituko dituzte maisuaren esku mugimenduak, haren irakaspenak. Baina bera ere ikastera datorrela esan du Lopezek. Irakaslea ere ikasle dela.

«Dagoen kalabazarik handiena!», eskatu zuen aurren-aurrena merkatuan. Hamalau kiloko kalabaza bat, zazpi kiloko sandia bat eta haragi hezurak eskuratu zituen, natura hila egiteko lan tres-

na modura. «Elementu naturalekin lan egitea beti da osasungarria. Lantegietan mota askotako jendea egoten da. Nonbaitetik abiatu behar izaten da, eta natura hilak lan egiteko aukera ona ematen du». Gisa horretako tailerretan «benetan garrantzitsuena», pintore espainiarraren iritziz, «irritzi trukaketa da», ordea. «Hitz bera da garrantzitsua. Natura hila margotzeko egiten dira, baina margotu egiten dugu gure artean hitz egiteko, arrazoi bat, aitakia bat, bulkada bat egon dadin eta kontzeptu batzuk gara ditzagun».

'Honoris causa' izendapena

Lantegietan parte hartzen duten ikasleekin izandako harremanek eta komunikazioak «askatasun sentimendua» sortzen diote. «Kasu askotan jada euren lanak egiten dituzten ikasleak dira. Egun batzuetan euren ohiko lantokia utzi eta abentura txiki bati ekiten diote. Niretzat, abentura hori ikustea nik neuk bizitzea bezalaxe da». Kritikari gehienek onespina eta ezin konta ahala sari eta ohore dituen pintoreare horretzat garrantzitsua da norberaren ohiko espazioetatik ateratzea noiz edo noiz. «Berdin du zein den arrazoa, baina dena arautuegia izaten dugu, eta norbere txokotik irtetea, ihes egitea eta beste espazio bat arnastea aberasgarria da».

Antonio Lopezek *honoris*



Antonio Lopez, atzo, Iruñeko Zabalguneko merkatuan. VILAR LOPEZ / EFE

causa doktore izendapena jasoko du Nafarroako Unibertsitatean datorren urriaren 27an. «Horrelako gauza baterako» prest dagoen ez dakiela adierazi du: «Ez naiz igaro unibertsitateetik, nire garaian Arte Ederretako ikaske-

tek ez zutelako egun duten maila, baina izendapen hori emateko temati jarri dira, eta ez daukat arrazoirik ezezkia emateko. Norbaiti balio badio, oso ondo egongo da, eta, akaso, niretzat ere baliagarri izango da».

→ Laburrak

Red Hot Chili Peppersen kontzertua zine aretoetan

MUSIKA Talde estatubatuarak hilaren 30ean aurkeztuko du *I'm With You* tituluarekin kaleratuko duen diskoa. Kolonian emango du lehen kontzertua, Alemanian, eta orduan joko ditu aurrenekoz lana osatzen duten abesti guztiak, berriak denak ere. Kontzertua hainbat aretotan emango dute zuzenean, tartean Getxoko Artea aretoa dago (Bizkaia).

Guggenheimen ia 120.000 ikusle izan dira uztailean

ARTEA Bilboko Guggenheimek bere «historiako emaitzarik onenetako bat» lortu du uztailean: 117.285 bisitari izan ditu, iaz baino %31 gehiago. Birritan baino ez da izan horrenbeste ikusle hil horretan: 1998an, musoa ireki ondoko udan, eta 2006an, *Errusia* erakusketak erakarritan. 118.792 eta 117.600 ikusle izan ziren urte haietan.

Bost organo kontzertu izango dira Araban asteen

MUSIKA Arabako 26. Organo Jaialdiaren barnean, bost kontzertu izango dira asteen, Moredan, Bastidan, Agurainen, Armaion eta Billa Okan. Javier Artigas, Joxe Benantzi Bilbao, Luis Dalda, Miguel Angel Garcia eta Miquel Gonzalez organistak ariko dira. Herri horietako elizetan diren balio handiko organoak joko dituzte.

Kioskoa

 harpidedunentzat **sarrerak**

berriak
gonbidatzen zaitu



HOSTOAK

AMAREN ALABAK
KUKAI • OREKA TX



4 sarrera

Pilota plaza
DONIBANE GARAZI
Abuztuak 11, osteguna

ERREMONTA

BURUZ BURUKO
KUTXA TORNEOA



www.oriamenti2010.com/eu

20 sarrera

Galarreta
HERNANI
Abuztuak 13,
larunbata
16:00etan

ERREMONTA

BURUZ BURUKO
KUTXA TORNEOA



www.oriamenti2010.com/eu

20 sarrera

Galarreta
HERNANI
Abuztuak 15,
astelehena
16:00etan

ERREMONTA

BURUZ BURUKO
KUTXA TORNEOA



www.oriamenti2010.com/eu

20 sarrera

Galarreta
HERNANI
Abuztuak 16,
asteartea
16:00etan

Sarrerak eskuratzeko: **www.berria.info**

edo deitu, **abuztuaren 10ean, asteazkena**, harpidetza sailera. (Deitzeko ordutegia: 09:30-12:00 Telefonoa: 943-30 43 45)

Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen izenak abuztuaren 11n argitaratuko ditugu.

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz

berria